

opusdei.org

Globalizazioa eta Ezagutzaren Gizarte aldakor honetan gizakia da erdigune

Gaztelueta, Eusko Jaurларitza
eta Bizkaiko Foru Aldundia,
punta-puntako irakaskuntzaren
alde

2004 Aza 17

Azaroaren 18 eta 19an, Gaztelueta
Fundazioak –Eusko Jaurларitza eta
Bizkaiko Foru Aldundiaren
laguntzarekin- Ezagutzaren
Gizarteko Eskolari buruzko

Jardunaldiak antolatu ditu
Euskalduna Jauregian. Ostegunean,
Abel Ariznabarreta, Eusko
Jaurlaritzaren Hezkuntza
sailburuordeak emango du hasierako
hitzaldia.

Bi egunetan zehar Euskadiko eta
kanpoko zenbait jakitun hartuko
dute hitza berbaldietan edo
komunikazioetan. Osoko bilerak
Estatu Batuetatik eta Europatik
etorritako gonbidatuen eskuetan
izango dira: Kevin Ryan (Boston
Unibertsitatea), Brigid Barron
(Stanford Unibertsitatea), Roy Pea
(Stanford Center for Innovations in
Learning izenekoaren zuzendaria),
Evelyne Bevort (Sorbonako
Unibertsitatea) eta Guy Haug
(Europako Batzordeko aholkularia -
Hezkuntza Zuzendaritza).

EAE eta Nafarroako maisuek ere
hartuko dute parte: Javier Aranguren
(Gazteluetako irakaslea), Konrado

Mugertza (Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza saileko berrikuntza pedagogikoko Zuzendaria), Charo Reparaz (Nafarroako Unibertsitatea), Nekane Arratibel (Mondragon Unibertsitatea) eta Jose Ignacio Mir (Donostiako Erain ikastetxeko zuzendaria).

Erronkak eta helburuak argi daude: inmigrazioa eta aniztasunaren arreta, eleaniztasuna Teknologia Berrien bidez bermatzea, e-learning-aren arloko esperientzien aurkezpena, eta beharrian bereziak dituzten ikasleentzako laguntza, besteak beste.

XX. mendeko azken hamarkadetan Industria Gizartetik Ezagutzaren Gizarterako bidea egin dugu. Globalizazioa, emigrazioa, aldaketa eta malgutasuna, eta ulertzeko gaitasuna duten teknologiak agertzea dira gizarte honen alderdietako batzuk eta, bertan, “ezagutza

sortzea” bihurtu da garapen ekonomikoaren eragile. Ezagutzaren Gizarte honetan gizakia da erdigune, onerako eta txarrerako.

- Zer-nolako parametroak kontuan hartu behar dira erdi mailako irakaskuntzako ikastetxeak Ezagutzaren Gizartearen etorkizunari ondo baino hobeto aurre egiteko egokitzerako orduan?
- Hezkuntza Komunitateak egoki presta al dezake bere burua, egoera berri hori arrakastaz bizitzeko?
- Teknologia Berriak erabiliz, zein esperientzia pedagogiko gauzatzen ari dira izen handiko ikastetxeak?

Galdera horien erantzun teorikoak alde batera utzi gabe, asmoa da Eskolak Ezagutzaren Gizartearen aurrean daukan erronka sozial, antropologiko eta teknologikorako baliagarriak izan daitezkeen

erantzun praktikoak entzun ahal izateko foroa eskaintzea.

Hezkuntzako VI. Nazioarteko Jardunaldi hauetan Teknologia Berriak erdi mailako irakaskuntzetan ezartzeari buruzko esperientziak aurkeztu eta elkartrukatzeko gogoia dauka Gazteluetak, esperientzia horiek ikastetxe eta bisitarienezako bide-erakusle izan daitezen, denak partaide diren erronka honen aurrean.

Horretarako Gaztelueta Fundazioak, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Teknologia Berriekin eta e-learning-arekin lotura duten enpresen, eta nazioarteko nahiz estatuko izen handiko adituen laguntza izango du oraingo honetan ere bai.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/globalizazioa-eta-
ezagutzaren-gizarte-aldakor-honetan-
gizakia-da-erdigune/](https://opusdei.org/eu-es/article/globalizazioa-eta-ezagutzaren-gizarte-aldakor-honetan-gizakia-da-erdigune/) (2026 Mar 1)